



# EUSKAL AUTONOMI ERKIDEGOKO HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALAK

## (A2) OINARRIZKO MAILAKO ZIURTAGIRIA ESKURATZEKO PROBAREN

### DESKRIBAPENA

#### 1. PROBAREN HELBURUA

Azterketariak aztergai den hizkuntzan, komunikazio-helburuetarako zenbateko gaitasuna duen neurtzen du hizkuntza bakoitzeko probak. Azterketariak, ahozko testuak eta idatzizkoak ulertzeko eta ohiko komunikazio-egoeretan ahoz nahiz idatziz adierazteko, bere jakintzak, trebetasunak eta baliabideak noraino baliatzen dituen ikusiz neurtzen da komunikatzeko gaitasun maila hori.

Oinarrizko Mailako probaren maila finkatzeko, Europako Kontseiluaren A2 mailaren berezko gaitasunak hartuko dira oinarri, hizkuntzen Europako Erreferentzi Markoan definitu bezala.

Informazio gehiago: *Euskal Autonomia Erkidegoko Hizkuntza Eskoletako Hizkuntzen Irakaskuntza Berezien [Oinarrizko Mailari dagokion Curriculumua](#).*

#### 2. PROBAREN DESKRIBAPENA, PUNTUAZIOA ETA ADMINISTRAZIOA

##### 2.1. Egitura eta iraupena

- Probak lau atal ditu. Atal bakoitzean trebetasun bat ebaluatuko da: irakurriaren ulermena, entzunaren ulermena, idatzizko adierazpena eta ahozko adierazpena. Lehenengo hiru atalek idatzizko proba osatzen dute eta saio bakar batean egiten dira. Azkena ahozko proba da eta beste saio batean egiten da.
- Iraupena (gehienez): 2 ordu eta 10 minutu, honela banatuta: 1:55 ordu (gehienez) idatzizko proba egiteko, eta 15 minutu ahozko probarako.

##### 2.2. Puntuazioa

- Oinarrizko Mailaren Ziurtagiria lortzeko, azterketariak atal guztiak gainditu beharko ditu. %60ko puntuazioa lortu beharko du gutxienez, bai idatzizko probako atal bakoitzean (hau da, 20 puntutik 12), bai proba osoari dagokionez (60tik 36 puntu), bai ahozko proban (20 puntutik 12).
- Nolanahi ere, idatzizko probaren ataletako batean %60tik beherako puntuazioa orekatu ahal izango da, baldin eta puntuazio txikiago hori atal bakar batean ematen bada, gutxienez %50era iristen bada eta idatzizko probaren beste atalen batean gutxieneko puntu-kopurura (36 puntura) iristeko nahikoa puntu badaude.
- Ahozko adierazpenaren atala ezingo da orekatu.

##### 2.3. Ahozko probarako deialdia

Idatzizko proba behin osorik gaindituta, azterketariari ahozko proba egiteko deituko zaio. Hala ere, idatzizko proba gainditu gabe daukaten azterketariak ahozko proba egiteko eskaera egin dezakete matrikulatuta dauden eskoletan. Horretarako, emango zaien inprimakia bete beharko dute:

- Ikasle libreek: ekainean
- Ikasle ofizialek: irailean

Dena dela, ahozko proba gainditzeak, idatzizkoa suspendituta duela, ez dio azterketariari (A2) Oinarrizko mailako ziurtagiria eskuratzeko eskubiderik emango.

**2.4. Probaren zatien deskribapena**

Irakurriaren Ulermena			
EGIN BEHARREKO ARIKETAK	PUNTUAZIOA GUZTIRA	GUTXIENeko PUNTUAZIOA	IRAUPENA
3	20 puntu (%25)	12 puntu	40 minutu

HELBURUAK	TESTU-MOTA POSIBLEAK	ARIKETA-MOTA POSIBLEAK
1. Eguneroko bizimoduko gertaera batekin lotutako informazioa bereiztea. 2. Testuaren ideia nagusiak ulertzea. 3. Testua zehatz-mehatz ulertzea; eskutitz pertsonal bat, adibidez.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• informazio-liburuxkak</li> <li>• argibide-orriak</li> <li>• egunkari eta aldizkarietako interes orokorreko artikulak edo elkarrizketak</li> <li>• liburu eta filmen aipamenak</li> <li>• publizitate-iragarkiak</li> <li>• eskutitz pertsonal errazak</li> <li>• merkataritza-eskutitz errazak</li> <li>• testu laburrak</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Erantzuna: aukera ugari</li> <li>• Egia-gezurra</li> <li>• Informazio-transferentzia</li> <li>• Ordenan jartzeko lanak</li> <li>• Elkarrekin lotzea: (epigrafea edo galdera testu batekin...)</li> <li>• Hutsuneak betetzea (esaldiekin edo hitzekin)</li> <li>• Erantzun bakarreko galdera irekiak</li> </ul>

**Entzunaren Ulermena**

EGIN BEHARREKO ARIKETAK	PUNTUAZIOA, GUZTIRA	GUTXIENeko PUNTUAZIOA	IRAUPENA GEHIENEZ
2 / 3	20 puntu - %25	12 puntu	20 minutu

HELBURUA	TESTU-MOTA POSIBLEAK	ARIKETA-MOTA POSIBLEAK
1. Modu selektiboan edo/eta zehatz-mehatz ulertzea. 2. Informazio nagusia ulertzea.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• elkarrizketa arruntak, informalak</li> <li>• banketxeetako, dendetako... elkarrizketak</li> <li>• iragarki publikoak eta publizitate-iragarkiak</li> <li>• telefono bidezko mezuak</li> <li>• albiste laburrak</li> <li>• eguraldi-iragarpenak</li> <li>• Bakarriketa moduko diskurtsoa</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Erantzuna: aukera anitzekoak</li> <li>• Egia-gezurra</li> <li>• Informazio-transferentzia</li> <li>• Informazio batzuk besteekin lotzea</li> <li>• Ordenan jartzeko lanak</li> <li>• Erantzun bakarreko galdera irekiak</li> </ul>

**Idatzizko Adierazpena**

EGIN BEHARREKO ARIKETAK	PUNTUAZIOA	GUTXIENEO PUNTUAZIOA	IRAUPENA
2	20 (5 +15) puntu (%25)	12 puntu	55 minutu

HELBURUA	TESTU-MOTA POSIBLEAK	ARIKETAK
1. Informazio zehatza ematea formatu labur eta errazean.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• mezu elektronikoa</li> <li>• postala</li> <li>• oharra</li> <li>• iragarkia</li> </ul>	Mezu, postal, ohar edo iragarki batidaztea (Gutxi gorabehera 40 hitz)
2. Mailari dagokion funtzio komunikatiboren bat betetzea, adib.: Informazioa, argibideak eta jarraibideak ematea / eskerrak ematea / barkamena eskatzea / nork bere buruari edo inguruari buruz idaztea / gertaera bat deskribatzea / zerbitzu bat eskatzea / informazioa eskatzea	<ul style="list-style-type: none"> <li>• eskutitz pertsonal laburra</li> <li>• eskutitz formal erraza</li> <li>• gertaera baten deskribapen laburra</li> <li>• testu elektronikoa (email, forum, bloga,...)</li> </ul>	Testu motz bati edo jarraibide batzuei erantzunez eskutitza, mezu elektronikoa, deskribapen edo istorio bat idaztea. Iritzia/informazioa modu errazean ematea. (Gutxi gorabehera 110 hitz)

**Ahozko Adierazpena**

EGIN BEHARREKO ARIKETAK	PUNTUAZIOAK	GUTXIENEO PUNTUAZIOA	IRAUPENA
3	20 (4 +8+8) puntu (%25)	12 puntu	15 minutu

HELBURUA	TESTU-MOTA	ARIKETAK
1. Nork bere burua aurkeztea	bakarrizketa	Nork bere burua aurkeztea txartel bateko galderei eta aztertzaileak egindako beste batzuei erantzunez.
2. Eguneroko bizimoduko gai baten inguruan, galdetzea eta erantzutea	azterketarien arteko galderak eta erantzunak	Galderak egin eta erantzutea, txartel batean emandako argibideetan oinarrituta.
3. Proposamenak egitea, akordio batera iristen saiatzea...	elkarrizketa, beste azterketari batekin edo batzuekin	Bi edo hiru azterketariren artean elkarreragite bat ezartzea, euren artean proposamenak egiteko eta akordio batera iristen saiatzeko. Emandako informazioan oinarritu beharko dute horretarako: agenda pertsonala, kultura-agenda, mapa...

**Oharra:** azterketariek ez dute denborarik izango ariketak prestatzeko.

Ahozko proba bikoteka egingo da (salbuespenez, ahozkoa hirunaka edo banaka egingo da).

[Ahozko adierazpen probari buruzko azalpen zehatzagoa.](#)

### 3. ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

#### Idatzizko Adierazpena

IRIZPIDEA	ZER EBALUATUKO DA
Egokitasuna	<ul style="list-style-type: none"> <li>◆ Idatzitako testuaren ulergarritasuna.</li> <li>◆ Ariketan eskatutako alderdiak jaso izana.</li> <li>◆ Hitz kopurua.</li> <li>◆ Eskatutako formatura egokitu izana (eskutitza, postala, oharra, argibidea ...).</li> <li>◆ Hartzaileari, helburuari eta egoerari egokitutako erregistroa.</li> </ul>
Koherentzia eta kohesioa	<p>Ideiak antolatuta eta lotuta dauden:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>○ lokailuen erabilera</li> <li>○ puntuazio-marken erabilera</li> </ul>
Aberastasuna: egiturak eta hiztegia	<ul style="list-style-type: none"> <li>◆ Egoerari eta hartzaileari egokitutako hiztegia.</li> <li>◆ Mailako egituren eta esapideen erabilera: aniztasuna eta egokitasuna.</li> </ul>
Zuzentasuna	<ul style="list-style-type: none"> <li>◆ Akats gramatikalak, sintaktikoak eta lexikoak eta akats horiek testuaren ulergarritasunean eta egokitasunean duten eragina.</li> <li>◆ Ortografia.</li> </ul>

#### Ahozko Adierazpena

IRIZPIDEA	ZER EBALUATUKO DA
Egokitasuna	<ul style="list-style-type: none"> <li>◆ Aztertzaileak eta beste azterketariak egindako galderen ulermena.</li> <li>◆ Azterketariaren ahozko produkzioaren ulergarritasuna.</li> <li>◆ Agindutako lana bete den.</li> <li>◆ Eskatutako formatuari lotu izana (hitzaldi elkarreragilean, adibidez, hitzaren txandak eta lankidetzaz-estrategiak eta komunikazioari eustea).</li> </ul>
Jariora eta ahoskera	<ul style="list-style-type: none"> <li>◆ Lokailuen eta doinuaren erabilpen egokia.</li> <li>◆ Etorria eta naturaltasuna, komunikazioari eusteko eta emandako lanaren arrakasta bermatzeko beharrezkoak diren neurrian.</li> </ul>
Aberastasuna eta zuzentasuna	<ul style="list-style-type: none"> <li>◆ Erabilera gramatikala eta sintaktikoa eta hiztegiaren hautaketa.</li> <li>◆ Akats gramatikalak, sintaktikoak eta lexikoak eta akats horiek testuaren ulergarritasunean eta egokitzapenean duten eragina.</li> </ul>

### 4. AZTERKETA EREDUA: ARIKETAK. ADIBIDE PRAKTIKOAK

[Azterketa ereduak eta ariketa praktikoak.](#)

**5. PROBA EGITEAREKIN ETA ADMINISTRATZEAREKIN LOTUTAKO ZENBAIT KONTU****Administrazioa****◆ Proba egin ahal izateko baldintzak**

Oinarrizko Mailako ziurtagiria lortzeko proba egiteko, nahitaezko baldintza da Euskal Autonomia Erkidegoko Hizkuntza Eskola Ofizialetako batean matrikulatuta egotea dagokion hizkuntza eta mailan.

**◆ Deialdiak**

Azterketetako egutegia kontsulta daiteke ikasturte bakoitzari dagokion ebazpenean, ikasle ofizialenean zein azterketari libreenean.

**◆ Proba ezintasunen bat duten pertsonei egokitzea**

Ezintasunen bat duten ikasleen behar berezietara egoki daitezke probak. Horretarako, matrikulatzean, dagokion eskolan jakinarazi beharko du hori interesatuak.

**◆ Proba berrikusteko eta erreklamatzeko eskubidea.**

Antolakuntza eta funtzionamendu araudiaren arabera –bertan zehazten da zein diren ikasleen eskubide eta betebeharrak– edozein azterketarik uste badu ebaluazio-prozesua ez dela egokitu araudian ezarritakora, proba berrikusteko eskaera egin dezake proba egin duen Hizkuntza Eskola Ofizialean, eskola bakoitzak aurreikusitako egutegia errespetatuz, betiere. Dagokion hizkuntza-departamentuak azalpenak emango dizkio interesatuari.

**Azterketariaren eginbeharrak eta erantzukizunak**

	<b>Probaren aurretik</b>	<b>Proban zehar</b>
<b>EGINBEHARRAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>◆ Gogoratu NAN, pasaportea edo nor zaren egiaztatuko duen beste agiriren bat aurkeztu beharko duzula azterketa-gelan eskatutakoan.</li> <li>◆ Tinta beltz edo urdinezko boligrafoa ekarri behar duzu probara.</li> <li>◆ Proba normaltasunez egitea oztopa dezakeen edozein arrazoiren berri eman behar zaio eskolako Ikasketa Burutzari, gutxienez proba egin baino astebete lehenago. Ikastetxeko Zuzendaritzak erabakiko du aurkeztutako arrazoia onartu ala ez; edozein kasutan, ordaindutakoa ez da itzuliko.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>◆ Erantzun guztiak boligrafo beltz edo urdinaz idatz itzazu. Ez da zuzenduko proba ofizialaren itxura bera ez duen probarik; ezta arkatzez idatzitakorik ere. Ez ezazu erabili ezabatzen den boligraforik.</li> <li>◆ <b>Itzali gailu elektronikoko guztiak, telefono mugikorra eta erloju elektronikoa barne.</b> Azterketa egin bitartean, ezin izango da horrelako gailurik erabili, ezta denbora kontrolatzeko ere. Arau hau bete ezean, azterketa baliogabetu egingo da.</li> </ul>
<b>ERANTZUKIZUNAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>◆ Ondo begiratu probaren eguna, ordua eta gela zein diren eta antolatu garaiz iristeko.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>◆ Behar bezala antolatu eta banatu ariketa bakoitza egiteko dagoen denbora. Denborak kalkulatu daude eta ariketa bakoitza egiteko nahikoa asti dago. Komenigarria izaten da berrikustea eta egon daitezkeen akatsak zuzentzea.</li> <li>◆ Arretaz irakurri ariketa eta zati bakoitzerako emandako argibideak.</li> <li>◆ Letra argia erabili ariketa osoan. Zuzentzat emandako erantzunak argi geratu direla ziurtatu.</li> <li>◆ Garrantzitsua da lasai egotea eta proba egiteko ematen diren argibideak arretaz jarraitzea, batez ere entzunaren ulermenari dagokion zatian.</li> </ul>

## 6. INDARREAN DEN ARAUDIA

### Lege eta administrazio arauak

Oinarrizko Mailari dagokion Ziurtagiria lortzeko Probak arauturik daude, ondorengo lege eta agirietan, hain zuzen:

- ◆ [2/2006 Lege Organikoa, 2006ko maiatzaren 3koa.](#)
- ◆ [1629/2006 Errege Dekretua, abenduaren 29koa.](#) Erregimen bereziko hizkuntzen irakaskuntzako curriculumaren oinarrizko ertzak finkatzen dira dekretu horren bidez. Hezkuntzako 2/2006 Lege Organikoak, maiatzaren 3koak, arautzen ditu Erregimen bereziko hizkuntzak.
- ◆ [46/2009 Dekretua, otsailaren 24koa](#) (EHAA - 2011ko urtarrilak 12). Honen bidez, araubide bereziko hizkuntza-ikasketen mailetako –oinarrizkoa, tartekoa, aurreratua eta gaitasun maila– curriculuma ezartzen da eta ikasketa horiek Euskal Autonomi Erkidegoan jartzen dira.
- ◆ Euskal Autonomia Erkidegoko Hizkuntza Eskola Ofizialetako Hizkuntzen Irakaskuntza Berezien artean prestatutako [Oinarrizko Mailari dagokion Curriculumua](#).
- ◆ EAEko Hizkuntza Eskola Ofizialetako (A2) Oinarrizko Mailaren Ziurtagiria eskuratzeko **Azterketaren Zehaztapenen** dokumentua.
- ◆ [Agindua, 2012ko maiatzaren 15ekoa](#), Erregimen Bereziko Hizkuntza Ikasketak **ebalatu** eta egiaztatzea arautzeko dena (EHAA, 113. zkia – 2012ko ekainaren 11koa).
- ◆ **Ebazpena** Euskal Autonomia Erkidegoko Hizkuntza Eskola Ofizialetako **proba librean deialdia** arautu eta probak nola egingo diren finkatzekoa, oraingo ikasturte honi dagokiona.

### Probaren maila

Oinarrizko mailako probaren maila honako lege-dokumentu hauetan jasotakoa da:

- ◆ [Abenduaren 29ko 1629/2006 Errege Dekretuan](#). (Urtarrilaren 4ko EBOan argitaratu zen dekretua). 2. art.: *“Oinarrizko mailaren curriculuma zehaztean eta maila hori gainditu izana egiaztatuko duten ziurtagiriak arautzean, Hezkuntzako Administrazioek Europako Kontseiluko A2 mailari dagozkion gaitasunak hartuko dituzte erreferentziatzat, Hizkuntzentzako Europako Erreferentzia-Marko Komunean maila hau zehazten den moduan.”*
- ◆ [46/2009 Dekretua, otsailaren 24koa](#) (EHAA - 2011ko urtarrilak 12). Honen bidez, araubide bereziko hizkuntza-ikasketak Euskal Autonomi Erkidegoan jartzen dira.
- ◆ Euskal Autonomia Erkidegoko Hizkuntza Eskola Ofizialetako Hizkuntzen Irakaskuntza Berezien [Oinarrizko Mailari dagokion Curriculumua](#). Kontsultatu goian agertzen den estekan sakatu.
- ◆ [Europako Erreferentzi Marko Bateratua](#), batez ere:
  - 3.3 puntua, 1. kuadroa (32. orrialdian)
  - 3.5 puntua, 2. kuadroa (34 – 35. orrialdeetan)

### Informazioa

- ◆ Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko Hizkuntza Eskola Ofizialen Web orria: <http://www.euskadi.eus/heo>
- ◆ Hizkuntza Eskola Ofizial bakoitzaren Web orria: <http://www.euskadi.eus/heo>
- ◆ Eusko Jaurlaritza Hezkuntza Saila: <http://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/hezkuntza-saila/>